

- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- C Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Areto futbola



Araudiaren egokitzapenak

1. JOKO EREMUAREN ETA ATEEN NEURRIAK

Kategoriak	B. - A.	I. - C.
Jokalekua	40 m. x 20 m. Aldaerak (38 - 42 m. x 18 - 22 m.)	
Ateko area	6 m	
Penalti puntua	6 m	
Penalti bikoitzaren puntua	10 m.	12 m
Ateak	3m. x 2 m	

2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA

Kategoriak	B. - A.	I. - C.
Jokalariak aktan	Gehienez 12 Gutxienez 8	Gehienez 12 Gutxienez 7
Jokalekuko jokalaria	Gehienez 5 Gutxienez 4	
Jokalari txandatzea eta aldatzea	Jokalari guztiak 10 minutuko zati bat jokatu dute gutxienez	Libre

3. PARTIDEN IRAUPENA

Kategoriak	B. - A.	I. - C.
Joko denborak	20 minutuko 2 zati Zati bakoitzak 10 minutuko 2 zati	25 minutuko 2 zati
Atsedendialdiak	5 minutu, bi zatiren ondoren 2 minutu zati batetik bestera	10 minutu zati batetik bestera

4. MATERIALA

Kategoriak	B. - A.	I. - C.
Baloia	ProAstore , Barri ereduakoa Zirkunferentzia: 61-64 cm Pisua: 410-430 gr	

- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- C Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Areto futbola



Araudiaren egokitzapenak

5. ARAU TEKNIKOAK

Kategoriak	B. - A.	I. - C.
Alboko saka	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarekin aterako da. Ezin da zuzenean gola sartu. • Baloia eta jokalarien kokapena: <ol style="list-style-type: none"> 1. Baloia geldirik edukiko da alboko marran. 2. Sakea atera behar duena alboko marraren kanpoaldean jarri behar da. 3. Defentsak gutxienez 5 metrora egongo dira baloia dagoen lekutik. • Arau-urratzeak/Zigorrak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Alboko saka 4 segundotan ateratzen ez bada, talde aurkariak aterako du. 2. Alboko saka gaizki egiten bada, talde aurkariak aterako du. 3. Jokalari batek modu desegokian arreta galarazten badio saka egitera doanari, kiroltasunaren aurkako portaeratzat hartuko da eta txartel horia aterako zaio. 	
Kornerra	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarekin aterako da. • Zuzenean sar daiteke gola. • Prozedura: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Baloia: ertzeko koadrantearen barnean. 2.- Baloia jokoan: mugimenduan jartzen denean. 3.- Aurkaria: baloia dagoen lekutik 5 metrora, gutxienez. • Arau-urratzeak/Zigorrak: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Kornerra 4 segundotan ez bada ateratzen, ateko saka egingo da. 2.- Kornerra gaizki egiten bada, berriro aterako da. 	
Ateko saka	<p>Baloiak zelai erdiko marra gaindi dezake.</p> <p>Arau-urratzea eta zigorrak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 4 segundotan ateratzen ez bada, jaurtiketa libre ez-zuzena izango da talde aurkariaren alde, areako marraren gainean, urraketa egin den lekutik ahalik eta hurbilen. 2. Baloia penalti areatik atera baino lehen jokalariren batek ukitzen badu, ateko saka berriro egin behar da. 	
Atezainari baloia ematea	<p>Ondoko kasuetan eman dakioko baloia atezainari:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Aurkari batek ukitu badu b) Falta bat, alboko sake bat edo kornerra bat ateratzean c) Aurreko kasu horietan guztietan, atezainak ezingo du baloia ukitu, betiere pasea nahita eta oinarekin egin bada. <p>Arau-urratzea eta zigorrak: Jaurtiketa libre ez-zuzena adieraziko da atezainak, baloia urrundu edo pasatu ondoren, berriro ere ukitzen badu bere kide batek nahita pasatuta, eta baloia zelai erdiko marra gainditu ez badu edo aurrez aurkariren batek ukitu ez badu..</p>	